

GAZTAMBIDEKO ERRHOA

Lehen Zathia (I^{er} acte)

GAXUXA eta PANTTIKA

(GAXUXA mihise idortuen biltzen ari eta kantuz)

GAXUXA: *Iruten ari nuzu khilua gerrian*

Ardura dudalarik (bis) nigarra begian;

PANTTIKA (*saski bat eskuan*): Zer duzu kantu ilhun hori, Gaxuxa, bethi nigar eta nigarrak!

Denbora aski euritsu dugu, nigarrik gabe, errekek gaindi egiteko.

GAXUXA: Eta zuri, Panttika, ez zaitzu lakhet kantua?

PANTTIKA: Bai, segur, bainan ez nigartsu horietarik! Airosak! Airosak! Hau bezalakoak: (*dantza piko batean*)

Dantza! Dantza!, Mariaño!

Ala farandolan emaiten ginuena (farandola balitz bezala, Gaxuxa eta haren saskiaren itzulika ariz)

Agur, Etxebe nora zirare, Bizi zirateia oraino?

—Bai, bizi eta biziko oraino,

Hartzekoak kobratu arteraino (bis)

GAXUXA: Biba zu, Panttika, ez zira beraz akitua. Bizkitartean zure oinetakoeri, ageri du arrundik heldu zerila, Ixtilarteko-bordatik araz?

PANTTIKA: (Pausatuz saskia): Beharrik ere, ez ditut hautsi arroltze horiek! Bai, ibili naiz erreka zoko horrietan arroltzeketa eta gasnaketa. Nekhez atxeman ditut arroltze horiek! Diotenaz oilo guziak koloka dire kanbiatzen ari!

GAXUXA: Eta kario dituzu?

PANTTIKA: Kario! Zer marrumak eginen dituen sarri etxeko andreak! Lauetan hogoi libera dotzena arroltzia; berrehun, kilo gasna! Bizirik biphilduko gituzte eta janen godainik! Alta, lanik aski, dena hexu eta larru baita gure etxeko andrea! Eta zuhurra! Zuhurra!

GAXUXA: Bixkitartean ontsa tratatzen zitu! Zure mathelak ikusi ta ezin ukha! Hilabete pare bat hor zirela eta tortoila bezain gizen bilhakatua!

PANTTIKA: Nahi duzun bezenbat! Bainan ez ni lakhetzen etxe hortan. Bethi begitarte beltzenean dago andre hori. Presondegi bortha bezain ilhun. Behar ba, urthean behin irriño bat eskapatzen zako? Ihauteria goizean, araz! Eta oraino ez dakit batere.

GAXUXA: Zer nauzu adina, jitea!

PANTTIKA: Eta gero, Gaxuxa nahi niz hirirat juan, hango berri nahi dut jakin! Zer diren zinema horiek, dantzin horiek! Karrika zabal luze horiek! Magasina horiek dena argiz zilarrez, urrhez dirdirantak?

GAXUXA: Bai, bero bozpasei hilabethen buruan, jiteko herrirat ezindua, mehatua xori lumarik gabe iduri, mathelak ezpainak xuri, hori!

PANTTIKA: Ez, gorritz tintatuko ditut, hexur mazelak ere gorriño pollit batekin. Eta ez othe dut bilduko senhar xarmant zerbait, horaindi, dantzin horietan; xapelduna, muztatxa beltz bat, frantses zerratua moltza guria halere!

GAXUXA: Guarxia emazu Panttika, arrainari amua eder! Holakoekin, zure kantu arrosak ezkont biharamunean zintzurrean ithoko zaizkitzu... Holakoekin ezkont-aintzin dea legun. Biharamunean, sagarroiarren orratzak ageri.

PANTTIKA: Biba zu, Gaxuxa, esker mila, zure kontseilu ona ere arroltzekin zare berean emaiten ditut. (*orduan entzuten da oihanetik kantu bat*) Zer da bada kantu trixte hori?

BIGARREN ATHERALDIA (2ème Scène)

GAXUXA, PANTTIKA, GAZTANBIDEKO ERRHOA

ERRHOA: (*Badabila, nehoi kasurik egin gabe, trixteki, kantuz ari, norapeit urrunerat behatuz*)

Lo, lo, nere maitea, ni naiz zurekin,

Lo, lo, paregabea, nigarrik ez egin,

Goizegi da, munduko, gelditzen bazira

Nigarretan urtzeko baduzu denbora

(Hala, hala, ezti-eztia, kantuz ariz, juaiten da)

(3ème Scène)

PANTTIKA: Nor dea hori? Ala arima penatua? Oi, bisaia trixtea! Ikusteak berak min egiten daut!

GAXUXA: Ez dakizu horren ixtorioa? Ixtorio bihotz erdiragarria! Hori Gaztainbideko etxeko andrea da.

PANTTIKA: Nerea baino hitsagoa! Ez baita guti! Beraz?

GAXUXA: Orai dela hogoi bat urthe, emazte xarmanta zen, diotenaz! Goxoa, alegera, debota! Senharra urhea bezain fina, ona, etxalde ederra ederki ibilarazten. Host, biziki urus, hiru urtheko nexka maitagarri batekin.

PANTTIKA: Zorion osoa, beraz! Gero?

GAXUXA: Horra nun, uda handian, nausia mutilekin ogien biltzen zelarik eta andrea nexkatoarekin pentze zolan mihisen hedatzen, sua lotzen den etxean! Ixtant batean, zelhaurriak belarrez betheak, etxe guzia, hartua da erretzen ari! Jendeak bildu baino lehen! Ama oihuka: Haurra, haurra! Nausia errhotua su lamena erditik sartzen da barnean! Memento berean teilatu guzia errortzen da arrabots izigarrian! Suak dena jana!

PANTTIKA: Oi trixtea. Eta haurra?

GAXUXA: Gorputz nimiño hori, nehork ez du gehiago ikusi! Aitaren hezur hondarrak bakharrik! Erran zuten, ba, jende batzuek zutela su eman... eta... ba, zer ez da erraiten hala.

PANTTIKA: Eta andre gaztea?

GAXUXA: Orizu! Oxtian ikusi eta etzun duzuna! Gelditu zen zenzua galduta, mututa! Geroztik badabila, bethi bera, kantu eta errepika bera emanez noiztenka! Agur Maria bat ere batzuetan! Geroztik hare ahotik ez da bertze elherik atheratu!

PANTTIKA: (entzuten da gazte batzuen solas eta irri. Behatuz urrunera) Zer da bada jendeketa hori? Ah! Araiz, ezkut ala koloni de bakanze deitzen diren horietarik! Zer xantza duten bethi pasa ibiltzeko!

GAXUXA: Oi! Ustegabetarik denbora jua zauku! Banoha laster ene mihisekin!

PANTTIKA: Eta nik, zer adituko dut? Bazkaria egitekoa eta arroltzeak hemen! Adios, Gaxuxa prestua!

GAXUXA: Adios! Andere biphila! Sarri artio!

LAUGARREN ATHERALDIA (4ème Scène)

(Hamasei neskatoko jauzika sartzen eta jartzen phentzean)

HERMANTZA (*Eskus erakutsiz PANTTIKA eta GAXUXA juaiten laster batean*): Beha, beha, neska horiek zer galopetan dohazin!

JULIANA (*Irriz*): Izitu ditugu beharbada, xoriño gaixo horiek!

OROK: Hop! Hop! Geldi! Geldi! Kaso, kaso!

PANTTIKA (*urrundik*): Adios haur ederrak! Egizue pausa!

PAZKALINA: Orizue! Ez dire horrela izitu!

GUZIEK: Adios! Adios, amigo!

DOLOREZ: Ontsa, ontsa! Juan bite! Jinen dira, jinen horiek ere gure dantzen ikusterat.

ANDREZITA: Othoi. Uzzazkitzue orai gure dantzak pausuan.

PAZKALINA: Hala da! Goizeko lau orenetarik hasi'ta, gure oto-kamion horietan hezurak hautsiak gira. Eta Dolorez horrek dantzak aiphu.

DOÑA MIREZ: Gure Pazkalina bethi zinkurrinaka, nahi duxu pomada hexurrendako.

DOLOREZ (*Dantza piko bat emanez*): Hemen bederen gostuan gira... (behatuz bazterretarat) eta Matrona ez dugu hemen!

MAITE: Jainkoak beira!

HERMENEGILDA: Zer duzue erraitekorik zuek?

JULIANA: Xo! Hermenegilda kexu da bere usaian!

MIKAELA: Dena den, zer piaiak ez ditugu egin!

EXTEFANA: Zer ez duzu ikusi? Marzeilla bera! Zer hiri handia!
MIKAELA: Zer jende espantua, han! Gure dantza finenak ezdustzat zaizkoten.
DOLOREZ: Eta berak, dela emazte dela gizon tipula baino pisuago.
ANDREZITA: Tolosan aldiz, jende bero-beroak, esku zartaka gure jautzi guzientzat, eta ez aski laudorio!
AGUSTINA: Eta Pauen atzo, jende xotila, ezpain puntez bibaka!
FATMA: Bainan kaskoin horiek, hare handikoak!
DOÑA MIREZ: Esku hertxi, moltsa hetsi!
MIKAELA: Hemendik Españiat, eta gero, jo aintzina Italiarat.
NIKOLASA: (Trufaz) Gero Ameriketara! Arauz?
PAZKALINA: Othoi, ez oro irets betan! Egungo baduzu frango horrela!
LEANDRA: Zer diozu bada, Marider?
HERMENEGILDA: Ho! Marider, bethi ixil dago! Gure konpañian araz ez laketzen.
FATMA: Bai, bethi printsesarena egiten!
MARIDER: Toki basabazter hunen ikusteak egiten daut zerbait bihotzean.
EXTEFANA: Hala da! Ez dakit zertako gure Matronak hunat bildu gaituen!
LUMFILA: Eta herrixka huntan emanaraziko gure dantza guziak?
DOLOREZ: Ez du bada hemen bilduko Tolosan bildu duen dirua.
PAZKALINA: Xo! Ez aiphu moltsaz! Matrona hurbiltzen ari zaukun
MAITE, EXTEFANA, JULIANA: Ai, ai, ai!
HERMANTZA: Zer erasiak entzunen ditugun!

BORTZGARREN ATHERALDIA (5ème Scène)

(Berak, MATRONA eta THEODORA hunen kusia)

MATRONA: Zer da bada kalaka hori? Igorri zituztet oihan hunetarat pausu zerbaiten hartzeko; bero handi hunekin lokhartuz.
MIKAELA: Barkatu, Andrea, gostuan ginen, ixtorio kondatzen.
MATRONA: Zer ixtorio? Hik, Mikaela, eman beharko dun sarrhi sakelan mihi luze hori. Hiruetan pasatuko tutzue hemen, zuen jantzi horiek, zizten alferrak!
PAZKALINA: Bai, Andre!
MATRONA: *(Ikusiz MARIDER, bidaia, bi eskuz hartuta):* Eta hi, Marider, zer dun manera hori, hala ditun entzuten nere manuak?
MARIDER *(umil-umila)* Entzuten nintuen, Andrea!
MATRONA: Hi, hiz, konpañia guziko buru gogorrena! Andere printsesa! Bethi isil, bethi bazten, bethi azpiz ari! Sarrhi beharko tun dantza horiek eman arraiki! Bertzenaz hanbat gaixto hiretako. Badakin kamionean badela toki beltza? Eta ez bahiz xuxen juaiten ukhanen dukala baxeta militzekoa azken baxaraino!
MARIDER *(tristeki):* Bai, Andre!
MATRONA: Bai, eta etzakela egin andrearena, hemen, Marider, eta hemendik aintzina deituren hut Maritzar! Aditzen duzue, hemendik aintzina ez gehiago Mariderrik zuen artean, Maritzat ez bertzerik.
FATMA, DOÑA MIREZ, HERMENEGILDA, ANDREZITA: Ho! Ho! Maritzar! Maritzar!
MATRONA: Aski! Eta orai zoazte itzuli baten egitera karrika hortara eta sarri oihan huntan berean, hiruetako xuxen, dantzen errepika! Orai, guziak jua bixtatik!

(Oro ixilik eskapatzen)

SEIGARREN ATHERALDIA (6ème Scène)

(MATRONA eta THEODORA)

THEODORA: Frango kexu zinen Mariderren...
MATRONA: Maritzar...
THEODORA: Maritzarren kontra.

MATRONA: Ez nezake jasan neska hori! Hemezortzi urthe, ttipitik-ttipitik gure tropan dela. Ez dut sekulan hezi ahal izan. Gogoan duke berak aitoren alaba dela. Bainan pasararaziko dakot urgulu hori! Baitezpada.

THEODORA: Esku onean da hortako! Bainan kusia, Marzeillan, Tolosan, Pauen eman tutzu zure bestak.

MATRONA: Beharrik ere! Eta zer ez dugu bildu diruz ontasunez! Zerbaitetako ari gira lanean xoriño horiekin!

THEODORA: Zertako beraz emaiten duzu besta bera hiri ezdeus huntan. Ez ditutzu zure fresak ere eginen.

MATRONA: Orizu, Theodora, ene buruaren satifatzeko. Nun ere egin baitut jokorik habilena... tzarrena, laket zait hor berriz pasatzea! Dela hemezortzi, hogoi urthe, hasten ginelarik bizipide huntan, joko hoberena hemen jokatu dut, bilduz huntarik frango (erhiekin soso biltzeko seinalea eginez), baitare zerbeit dizipulu, dantzari gei! Maritzarrak balaki! Bainan aski hortarik!

THEODORA: Bainan, kusia, ez zira beldur norbaitek zilatzea...

MATRONA: Beldurr? Zertaz? Matrona ez da nehorez, ez deusetei beldur, ez debruaz, ez zeruaz.

Lehen zatiaren akabantza

Bigarren Zathia (2ème acte)

MAITE eta MARIDER

LEHEN AGERRALDIA (1ère Scène)

MAITE: Lehenak gira jinik oihan ttipian. Bederen Matronak ez gaitu gaizkirik erranen, berant girelakoan.

MARIDER: Ikaran nago emazte izigarri horren aintzinean. Gero eta gehiago higuintzen nu. Gau eta egun ez daut bakerik uzten. Oh! Maite, zu bederen hor baitzira enekin, zuz zaitut adixkide baxharra. Zu gabe, hil ninteke gure tropa trixtean.

MAITE: Zer nahi duzu? Gure zortea holakoa da. Gitano, gitanoekin...!

MARIDER: Ez Maite, ez zu ez ni ez gira mota hortarik. Fatma, Doña Mirez, Hermenegilda, Andrezita, horiek, bai, nahi duzun bezanbat. Larrutik beretik ageri da!

MAITE: Oh! Marider, zoin penatua ziren egun, ez zitut behinere hain trixte ikusi, alainan!

MARIDER: Lekhu aintizetan, hiri, herrixka, bidetan ibili gara, Maite. Bizkitartean deusek ez daut gogoia jo nola basabazter hunen ikusteak. Iduri zait mendixka horiek, oihan hau, etxe zabal hori, bertze hura bere dorrearekin, ene ametsetan ikusi ditudala.

MAITE: Haatik, ez gira sekulan oihan zoko huntan aurkhitu! Zer zuen buruan gure Matronak gu hemen geldiarazteko?

(Entzuten da arbolen artetik errhoa kantuz)

ERRHOA: Lo, lo, nere maitea, ni naiz zurekin! Lo, lo, paregabea, nigarrrik ez egin ete...

MARIDER: Zer da hori! Zer kantu bihotz erdigarria! Zer boz trixtea.

(Xutitzen dira eta badohazi kasik kanporat hari beha)

MAITE: Beha emazte hori beltzez bezti.

MARIDER: Oh! Bisai hori zoin penatua!

MAITE: Emazte errho zonbait! Aski gaztea oraino.

MARIDER: Horren ikusteak barnea nahasten daut! Eta kjantu hori, kantu hori! Nola bihotzean sartzen sautan! Oh! Akabo niz, Maite, bisaia hori gogoan, gaizki ariko naiz sarrhi! Eta Matronaren erasiak eta zafraldiak gero?

MAITE: Xo, horra gure tropa heldu zaikula orai! Alo, ukhan bihotz, Marider lagunduko zaitut.

BIGARREN AGERRALDIA (2ème Scène)

Bi berakin tropa guztia

PAZKALINA: Beharrik ere aski goiz gira! Bertzenaz, xahu ginen Matronarekin.

HERMENEGILDA (*mesprezioz*): To, Maritzar hemen. Izenez kanbiatuz ez da muthurraz aldatu! Bethi berdin mokhor eta ilhun.

DOÑA MIREZ: Bai, Aitoren alabatzat dauka bere burua.

MAITE: Utzazue bada bakean, bethi errepika bera diozue!

FATMA: Ba, hi ere, mota berekoa hiz!

MAITE: Bai, nahiago enea zurea baino.

MARIDER: Xo, Maite, othoi ez erasiarik

JULIANA: Kasu, Matrona bere kusiarekin heldu.

MIKAELA: Ai zer dantza pikoak.

HIRUGARREN AGERRALDIA (3ème Scène)

Tropa guztia eta MATRONA eta THEODORA)

MATRONA (*Tropa guztiari behatuz*): Ikusiko dugu orai atzarririk zaitezenez, ukhan duzu astia frango pausuarentzat! (*Mariderri behatuz*) Zer dun, Maritzar, begitarte mokhor hori, usaiakoa! Ez dun nigar egiteko sasoina! Erna ala hunek (*Eskuan duen zigorra inharrotsiz*) ernaraziko hitu!

MARIDER: Ahalak ere, eginen ditut, andrea.

MATRONA: Geroak erakutsiko! (bertze guzier) Guziak orai zuen plazetara!

THEODORA: Alo, haurrak, ari azkarki, ni banoha, zuen kozinaren egitera. Beraz, ari, ari, gogotik ari.

STEFANA: (aphalki) Zuk eginen bazkari!

MIKAELA: Xauxixa dirudi xixari!

DOLOREZ: Salsan ilharrak igeri!

MATRONA: Xo, zafrazten dut mihia higitzen duena! Orai, lehen pondu, Kantabren dantza! Musikari jo!

(*Dantzatzen dituzte muxikoak*)
(*Akabatzen*)

MATRONA: (*Mariderri*) Maritzar! Maritzar, makhil bat iretzi dun! Iduri dun paxeta bat dantzan. Ernatzen ikhasteko gauerdi artio, sarrhi, baxerak ikuziko ditun!

(*orori*) Jo aintzina, fandangoak!

(*horiek akabatuta*) Pazkalina iduri dun fandango horietan hartzak umea dantzan. Sarrhi oren erdi batez errepikatuko ditun dantza horiek, Hermenegildak manaturik, eta ez bahiz ernatzen baxerak xukatuko tun gauerdi artio Maritzarrekin. Ha! Maritzar, hire begi horriekin iduri dun enterramenduan hizala. Eneagarria hiz fandango horietan, ez hut ikusten ahal gehiago! Ez bahaiz bertzelakatzen eta plantan jartzen zafraztuko hut odolerraino! Denen sehi jartzen hut eta zokho batean estekatzen.

Jo orain "Ballet" deitzen diren dantza bitxi horiek. Eneagarri zaizkit. Bainan behereko Frantses horier laket. Beraz astoari bere zahia. Ezen, mila demonio, sosa lehen! Musikari, zuri! (*Oro dantzan ari... Dantzaren erditsutan... zigor zafla bat Mariderren zangoari, oihuka*) Maritzar, guardia hiri! Debrua sartua duka aztaletan. Urde baten gisa dantzatzeko! (*Iepho aintzinean duen edergailuari lotuz*) Ondoko aldian makhur egiten badun, porroskatuko dinat edergailu hori!

MARIDER: Othoi, ez hori, andrea. Ariko niz ahal duztan guziak!

MATRONA: Berriz hasi joko hori! (*dantza erditsutan, MATRONAK zigorra zafrazaldi bat emaiten PAZKALINARI*) Hauxe da Tupina!

PAZKALINA: Ai! Atx. (*Grimasa handirekin*)

MATRONA: Bi egunez, bazkatuko ditun gure zerriak. Jo berriz, musikari, allegro!

(*Finitu-eta*) Aski huntarik! Oren laurden baten buruan Theodoraren bazkarirat. Orai fuera zaitezte eta itzal hemendik!

LAUGARREN AGERRALDIA (4^{ème} Scène)

THEODORA, MATRONA, PANTXIKA (xoko batetik beha)

THEODORA (*Manxak bilduak, burdin-zalhia eskuan*): Laster hor dugu gure banda?

MATRONA: Ez beldurrik izan! Jateko guziak ukhanen zoin lehenka! Alta, balinba, beharko dituzte gehiago arindu beren jauziak. Daukat, Theodora, ilharrez sobera asetzen ditunala! Zoin pizu tun!

PANTTIKA (*Jauzi batez MATRONAREN aintzinean*): Oh! Andrea! Xoratan nago! Gure baratzetik ikhusi ditut neskakoko horien dantzak, jauziak, itzuli guziak! Xoratuta nago!

THEODORA: Altha, bihar zer ez duzu ikusiren zuen plazan emanen delarik besta osoa aphaindura guziekin.

MATRONA: Jinen zira, bada? Eta baduzu gustu, lakhet zaizu?

PANTTIKA: Gustu dudanez? Lakhet zaitanez? Bainan dantzaz errhotua naiz! Nahi nuke segur gazte horiek bezenbat jakin eta hala ernatu!

MATRONA: Ez da ikhas ez ditakenik! Eta guziz (behatus PANTTIKari eta balakatuz) zu bezelako planta fina delarik! Iduri duzu fandangoendako moldatua zirela eta airean dantza zintezkela!

PANTTIKA: Uste duzu andrea?... Eta ardura ari dire joko horietan?

MATRONA: Aste guziez hiri handi famatu zonbaitetan!

PANTTIKA: Eta bisitatzan dituzte hiri handi horiek?

MATRONA: Behar ere! Eta haren besta eman-ta, libro dute egun osoa! Hola, azken hilabete horietan, bisitatu dute Marzella, Montpelier, Karkazon, Tolosa, Paue eta bertze. Geroan Espaiñiako hiriak, Donostiatik hasi-ta.

PANTTIKA: Zer xantza duten! Ni aldiz hau bezalako xoko trixtean itzatua!... Eta bertzalde irabazi ederra badute!

MATRONA: Irabazia! Bakotxak denbora laburrez bere dotea egiten! Eta besta horietan zer kadoak ez dakote heltzen? Ikusteek, behatzalek emaiten dure dantzariari, alal broxak, montrak ala brazaleak, kolierak, edergailuak.

PANTTIKA: Urrhirik, horiek oro!

THEODORA: Gehiago dena izan da gure nexkato hoetarik bat markis batek espos hartua, xoratua izan jaun hori halako dantzariari beha. Eta orai Andereño hori, palazio eder batean "*Madame la Marquise*".

PANTTIKA: Izan ditakea? Eta noiz artio zaizte hemen?

MATRONA: Hiru, lau egun! Hean, guztatuko zaitzunez gure besta? Eta gure bizi molde xoragarria?

PANTTIKA: Ah! Hemen ene etxeko andrea moxkorrarekin ez dut atsegin handirik!

THEODORA: Beraz, jin gure ikhustera, andere xarmanta!

MATRONA: Espaiñiako itzulia lakhet bazaitzu?

PANTTIKA (*lasterka juaitean*): Agur, andreak, bihar artio! (*Bere buruarekin*) *Madame la Marquise*! Zer ametsa!

BORTZGARREN AGERRALDIA (5^{éme} Scène)

THEODORA, MATRONA

THEODORA: Zer ihizi biphila gure sareetan!

MATRONA: (*Kantuz*) Xori erresiñola kaiolan da kantari...!

(*Kanpotik entzuten dire neskatokoen oihuak*)

Thodora, Thodora! Kozina, kozina, kozina!

THEODORA: Ai, ai, ai! Ene ilhar saltsa lotua daiteke! (*Laster batean joaiten da*)

MATRONA: Emakozu pipher eta gatz!

Biharren zathiaren akabantza

Hirugarren Zathia

MARIDER, MAITE

LEHEN AGERRALDIA (1ère Scène)

- MARIDER:** Gure lagunak hirixka hortarat joanak ditutzu, egon gaiten hemen, Maite, oihan ttipi hau biziki lakhet zait. Ixtant baten bakea bederen ukhan dezagun, jendetarik urrun.
- MAITE:** A: Marider, nola penatu nizan oxtian, zu ikusiz hoin gaizki tratatua!
- MARIDER:** Zer sofritu dudan ez ditake sinhets! Bihotza hain ilhun eta alegerenena egin behar! Bethi gogoan nuen oxtiko kantu bihotz-erdiragarri hura, errho gaixo horren begitarte eder eta penatu hori! Eta bethi toki hunen ikusteak burua nahasten nu; iduri zaitala ene ametsetan ikusi dudala.
- MAITE:** Utzazkitzu griña horiek guziak, erran duzun bezala ametsak dira hor, deus bertzerik. Bainan, arras beldurtu naiz oxtian Matrona izigarri hori lotu zaitzularik hala basaki, hausteraino zure koliera eta lephoko edergailua. Orobat nahi dute nexkaotko dantzariak ekhartzen soinean halako zerbeit, beszta batean diren argiekin monstra gehiago egiten baitute.
- MARIDER** (*erreposiki mintzo*): Eta ttipi-ttipitatik enekin ukhan dut ez naiz orhoit gabe izanik.
- MAITE:** Zer marka duzu edergailu hortan (*eta behatzen dio eskuetan hartuz*)
- MARIDER:** Oi, alde batetik emazte eder baten itxura eta bertzaldetik bi letra; ezin erran ez baitakit leitzen.
- MAITE:** Hor duzu M eta G. M.zure izenaren lehen letra, G... nork daki.
- MARIDER:** Eta bertzaldean emazte itxura hori, iruzki argi-adarrekin?
- MAITE:** Holako itxura bai ikusi dut Eliza batean eta han ziren emaztek erran dautet Ama Birjina dela!
- MARIDER:** Ama Birjina, Ama Birjina! Nor da hori??? Ez jakinik ere nor den, iduri zait maite dudala eta laguntzen ninduela. (*Eta medailari musu emaiten du*)

MARIDER, MAITE

BIGARREN ATHERALDIA (2ème Scène)

(*Kanpotik oihuak*)

- PANTTIKA:** Gaxuxa! Ho! Gaxuxa. Zato, zato.
- MAITE:** Jendeak, heldu, jendeak! Bazter gaiten! (Eta barnago arbol baten giblean jartzen dire).
- PANTTIKA:** Oh! Gaxuxa, ez tutzu bada ikusi neskato horiek dantzan! Xoratua egon niz baratze zolatik heieri beha.
- GAXUXA:** Norbaitek ikustekotz, zuk ikusi behar! Sudurra saltsa guzietan, Panttika!
- PANTTIKA:** Zer bada, ez da deus gaizkirik. Dantza mota guzietarik eman dituzte, inguruka, itzulika, goiti beheiti, aintzin, gibel, eskin, ezker, jautzi hunat, jautzi harat. Diotenaz emanen dute joko hori gure plazan. Ez niz azkenetarik izanen heuri beha!
- GAXUXA:** Dudarik gabe!
- PANTTIKA:** Eta tropa hori badabila hiri handi guzietan, Tolosan, Marzellan, Pauen, Españian, Italian, nik dakita?
- GAXUXA:** Zertako ez Ameriketean?
- PANTTIKA:** Baitare! Nik handiena ahanzten! Eta gogoan dut jakitea tropa horren berri.
- GAXUXA:** Segur jada badakizu frango.
- PANTTIKA:** Eta zer kondizionetan hartzen dituzten nexkatokoak, zer irabaziak diren?
- GAXUXA:** Oizu! Ez zinuen bertze beharrik arrun ergeltzeko.
- PANTTIKA:** Eta gero, kadoak trumilka, broxak, montrak, brazaletak! Eta gero "Madame la Marquise". Ho! Ho!
- GAXUXA:** Bainan arrunt zozotzen ari zira! Panttika gaixoa!

HIRUGARREN AGERRALDIA (3ème Scène)

MANUELA (*xaharra norbaiten xeka*): Zer ari zizte hor, haurrak, hein alegera?

PANTTIKA: Orizu, Gitano batzuek...

MANUELA (*grimasa batekin*): ho! Beldurtzen nute.

PANTTIKA: Jende plantakoak halere, emanen daukute besta ederra!

MANUELA: Ez engana zure buruak ene haurrak! Ni ene lanari noha! Ikusi duzue ene etxeko-andre gaixo hemen gaindi?

PANTTIKA: Nor? Emazte beltzez bezti, burua nahasia?

MANUELA: Bai, Gaztanbideko etxeko-andrea!

GAXUXA: Gu hunat geroz ez da izan alde huntan!

MANUELA: Ontsa da, esker zueri, haur maiteak, izan alegere eta prestu.

PANTTIKA (*aphalik*): Halabiz. (*Gora*) Bainan no da xahar maitagarri hau?

GAXUXA: Goiz huntan ikusi dugun andre errho haren sehia!

PANTTIKA: Zer? Errho horrekin egoiten bethi?

GAXUXA: Bai, etxe hortan oro urrus zirelarik sartu zen. Geroztik malhura jin. Eta ez du zorigaitzean bakharrik utzi nahi ukhan etxeko andre dohakabea. Hogoi urthe hala dela.

PANTTIKA: Hogoi urthe errho batekin. Ez nindute ikusiko holakorik egiten.

GAXUXA: Bai, hori saindu lana. Eta Manuela herriko saindua dugu. Bere buruaz axolarik ez; bethi bertzeri zer laguntza eginen duen eta lehenik bere etxeko-andreari!

PANTTIKA: Nolakoak behar dire arraiz, errhoen zerbitzuko bederen! Dena den bihar ikusiko ditugu dantza xoragarri horiek. (*Bi dantza piko eginez. Heltzen da ustegabeen MAITE eta MARIDERREN ondorat kantatuz*) Hupa, hupa Mariañe...! Zer ari zaitze hor, ixil-ixilak, ene andreak?

MAITE: Hemen gira pausuan, ostiko dantzen ondotik, ekhigarri baitire!

PANTTIKA: Ha! Bainan zoin ederrak! Gure baratzetik egon niz oxtian zueri behar ahoa zabalik! Beraz, bethi bestaz besta bazabiltzate?

MARIDER: Besterik ez da, bihotza ilhun delarik!

PANTTIKA: Halere guretzat bizi-moldea berdin, herrixka huntan, ala Marzellan, ala Tolosan, ala Donostian, ezin jalgi gure oton inguruetarik. Esklabotasuna!

GAXUXA: Eta zu xoxoa ere sinhesten!

PANTTIKA: Bizkitartean, zer sosa duzue biltzen phesta horietan? Irabazi ederrak egiten. Bortzpasei urthez dote guzia eskuetan. Horrela zuekin joan ninteke gogotik.

GAXUXA: Alo, Panttika, ez enuxenkeriarik erran!

PANTTIKA (*GAXUXAri buruz*): Eta Markisaren ixtoria!

MAITE: Ondokotz, diru kolore guti gure artean. Biltzen da frango, ba, bainan nausien moltsan sarthu-ta ez deusere ageri gero! Nehork ez du doterik egin heme.

GAXUXA: Zertako bada ari zaitze lanean?

MARIDER: Beldurrean bizi gira!

PANTTIKA: Zertaz beldur?

MARIDER: Zigorrez, azotez, bortxazko lanez.

MAITE: Behazue ene lagun gaixoak, hunek, baxera, untzi zikhin guziak ikuzten ariko da goizeko biak artio, bere jauzietan ez aski ernatuz, Matronaren gosture.

PANTTIKA: Oh! Emazte sorrheioa, eta niri honbertze gezur sakatu dauzkit! Eta zein polliki, ni biltzekotan araiz!

MAITE: Eta gero zer jestu landerosak ez ditugu egiten, Zurubietan, saketan, xutik zaldien gainean! Bertza herrixka batean egon da gure gizonen troopa, bere zaldiekin, ximinoekin!

PANTTIKA: Ximinoak ere, phu zikhina!!

MAITE: Eta hartzak, horiek ere dantzari!

PANTTIKA: Hauxe da ba konpañia!

MAITE: Eta gizon horiek beren hartzekin komedia egiten dutelarik gu ere haiekin!

PANTTIKA: Ho! Jainkoak beira!

MAITE: Eta itzuli horiek akabatzean hartzak guri besarka!

PANTTIKA: Ah! Othoi, ez holakorik!

MAITE: Hartzaren gidariak hari manatuz: "*Allons, Martin l'Ours embrasse Mademoiselle et montre que tu es galant*".

PANTTIKA: Ai, ai, ai, hor, hil ninteke odola bermatua!

MAITE: Eta senditzen bazinu hartzaren muthurra zure bisaiaren kontra!

PANTTIKA: Ez, ez, holakorik, nahiago dut ene etxeko andrearekin egon, zenbat ere mokhorra izanki eta hura!

MARIDER: Ez, ez urrunerat joan, leku laket eta trankil haukietarik! Eta bertzalde, ama bizi duzu?

PANTTIKA: Bai eta behar ere.

MARIDER: Beraz, ama duzune, egon harekin, hartaz goza, plazer guziak baino hobe atsegin hori.

GAXUXA: Eta zuek nun ditzue zuen amak?

MARIDER (*burua aphalduz*): Ez dugu amarik ezagutu.

GAXUXA: Bainan, nundik dira, nundik biltzen dira neskatoko horiek guziak?

MAITE: Batzu gitano nausien haurrak! Bertze natzu itsutuka konpañia huntan sartuak eta ezin athera gehiago. Zonbeit (*Aphalki*) burhasoeri ebatsiak (diotenaz).

PANTTIKA (*GAXUXA besotik hartuz*): ai, ai, ai, Gaxuxa, norekin gira hemen? Eskapa gaiten, urrun hemendik fite!

GAXUXA (*irriz*): Nun dago bada ostiko su hura? Ez zira beraz oraino Ameriketara partitzen pontuan?

PANTTIKA: Ez, ez bederen konpañia horrekin!

*(Aditzen da errhoa kantuz oihanean)
Lo, lo, nere maitea, ni zurekin...*

MARIDER: Oh! Berriz kantu hori, berriz boz hori! Trixtatzen nu ezin gehiago!

MAITE: Zer da bada presuna gaixo hori?

GAXUXA: Oh! Hemengo etxeko-andre aberats bat, lehen aspaldian, etxeari sua lotu zitzaion, senharra erre, haurra galdua ala erre! Geroztik geldita da burua nahasia, errhoa, kantu bera bethi errepikatuz eta bertze hitzik ez erranez!

LAUGARREN AGERRALDIA (4ème Scène)

Berekin Andre errhoa

ANDRE ERRHOA (*erreposki-erreposki sartzen nunbait errun behatuz*): Nigarretan urtzeko baduzu denbora...

(MARIDER xutitzen da, harenganat ari)

MAITE: Marider, utzazu bada trixte hori!

MARIDER: Kontsolatu nahi nuke! (Hurbiltzen zaio, emeki-emeki eskuak hartzen, muxu emaiten heier)

GAXUXA: Alferretan! Ez da deusetaz griña bere kantuz baizik!

(ANDRE ERRHOA MARIDERri behar luzaz, luzaz; gero haren medailari begi zorrotzez, finki. MARIDERri berriz; medailari oraino)

GAXUXA: Nola behatzen dion, eta medailari!

MAITE: Oi! Zer penak munduan!

(ANDRE ERRHOAK medaila hartzen berriz, behatzen luzaz; gero, eskua kopetan pasatuz, iduri ainitz sofritzen duela)

PANTTIKA: Zer ari da, bada? Beldur niz!

MAITE, GAXUXA: Xo, xoo!

ANDRE ERRHOA (*Memento berean, bisaia dena argitzen zaio, amets batetik jalgia bezala, oihu bat*): Oh! Haurra, ene haurra! Marider, Marider! (*Lepotik hartuz, besarka*).

MARIDER (*Oihu batean*): Ama! Ama! (*eta emeki amaren besoetarik lurrerat errortzen da trenpu txartua*).

MAITE (*harenganat presan*): Ez da hila bederen?

GAXUXA (*hurbiltzen ere*): Ez, trenpu txartua! (PANTTIKAri) Ur xortaat, Panttika, ekharradatzu ur sorta bat erreka hortarik!

PANTTIKA: Bai eta Manuela deitzen dut. Manuela, Manuela, hel, hel, fite, fite!

BORTZGARREN ATHERALDIA (5ème Scène)

Bertzeekin MANUELA

PANTTIKA (*jiten ur untzi ttipi bat eskuan*): Huna, huna ura!

MANUELA (*Oihanetik*): Heldu niz, heldu niz!

GAXUXA: Maiteari! Thorra besoak, thorra. (*Berak mokanes bustiarekin bisaia bustitzen, zafraldi ttipiez, artean...*)

ANDRE ERRHOA: Marider, ene haurra, Marider!

MANUELA (*Izitua*): Zer duzu bada halako oihuak?

PANTTIKA: Andere errhoak bere alaba ezagutu!

MANUELA: Zer diozu?

PANTTIKA: Beha!

ANDRE ERRHOA: Marider, Marider, ene haur maitea!

GAXUXA: (*MANUELAri*): Andrea presuna gazte huntan bere alaba ezagutu medailetik!

MANUELA: Ez ditake! Ez ditake! (*Eta batean*) Ha orhoitzen niz haur ttipiaren sortzeko seinalez lepho zolan! (*Iephoa hein ba biluziz*) O! Jainko ona, hura bera, hura bera! Hor sortzeko marka ezin ukatua! Egiatzko Marider, lehen hoinbertze ekharria ene besoetan. Bai andrea, zure haurra duzu hor!

(*Orduan, emeki atzartu da MARIDER*)

AMAK (*Berriz ari dela*): Marider maitea, ene haurra!

MARIDER (*Jartzen da inguruetararat behatuz eta nigarrekin amari*): Ama zaitut, ama, izen ditaken ama bat badudala. (*Eta berriz AMA du besarkatzen*).

SEIGARREN ATHERALDIA (6ème Scène)

Berak eta MATRONA, THEODORA

MATRONA (*Boz izigarri batean*): Zer dira jestu horiek? Mila demonio? Hunat laster, Maite, Maritzar, juan zuen kamionetarat (jotzen ditu)

[*Se tenant avec une certaine défiance près de la sortie et regardant sauvagement de tout côté*]

AMA (*Xutituz izigarriko begiekin*): Ene haurra, ene haurra, Marider!

MANUELA: Zoaz hemendik, emazte higuinaria, haur ebasle.

MATRONA: Zer dira erasia horiek? Hunat, Maite, Maritzar! (Besotik hartzerat doa Maite).

GAXUXA: Ez juan, ez juan, Andre Gaixoa!

PANTTIKA (*Eskapatuz eta arbol baten gibeletik*): Sorgina, sorgina, haur ebasle, gezurtia!

MATRONA (*Koleran hari buruz, aintzintuz pixka mehatxuekin*): Neska madarikatua, ez dun hezur zaharrik eginen! Ni berme!

MAITE, GAXUXA: Ho, ho!

(*Denak jartzen MATRONAren eta gazteen artean, trabeska*)

PANTTIKA: Sorgina, Pues zuri! Banoha, banoha, jandarmaketa plazarat, jandarmak helarazten ditut abian! (*Entzuten da urrunetik oihu egiten*) Jandarmak, jandarmak, hel, hel, ohoina, ohoina, Gaztanbideko oihanean!

THEODORA (*Besotik hartuz MATRONA eta bilduz bazterrerat*): Juan giten, juan giten laster hemendik. Utsain txarra du ixtorio hunek.

MATRONA: Jinen gira laster (*eskubiloa egitean bertzer*) gure gizonekin ikusiko dugu nor nausituko den, neska madarikatuak. Zorigaitz zueri!

ZAZPIGARREN AGERRALDIA (7ème Scène)

AMA, MANUELA, MAITE, MARIDER, GAXUXA

MANUELA: Ez kasorik egin jende basa horier. Jainkoak barka diotzetela. Gureak zaizte, gurekin egonen.

AMA: O, ene haurra, haur maitea! (*medailari behatuz eta zerurat erraiten du biziki errospoki*)
Agur Maria, graziaz bethe Jauna da zurekin bedeinkatua zare. (*Eta MARIDERrek*
AMA ezperineri behatuz hitzez hitz erraiten othoitz bera)

MANUELA: Oh, Zeruko Ama, banakien ez dela nehor zureganat ihets egin duenik, izan dela laguntzarik gabe utzia! Dela hogoi urthe galdatzen nuena egun guzietz Marider itzuleraztea etxerat, bizi bazen. Esker zuri Ama puxanta!

GAXUXA (*Nigar bat xukatzen*): Esker zuri!

MANUELA: Eta orai, Gaztanbiderat, Etxeko andrea zure mirakuluzko haurrarekin!

MAITE: Eta ni uzten nuzue?

MARIDER (*eskutik hartuz*): Oh! Maite maitea, elgarrekin izan gira bethi egun txarretan,
elgarrekin orai bethi egun urrusetan! Ez da hola Ama?

AMA: Bai, ene haurra, bethi nerekin, ene haur maiteak.

Azken zathiaren akabantza